

GEOGRAFIA OZTOPO. — Geografiaz maiz nahasten dira era desberdinetako gaiak, adibidez, politikazko geografia eta linguistikakoa, bakoitzak bere eremu ezaguna edukiarren. Esan beharrik ez da edozein gaitan lehenik mugaketak ondo egin beharra dagoela, baina gure herriko jakitunek inoiz argi ikusten ez dutena ez da erraz herbestekoez ikustea. R. Menéndez Pidal ospetsuaren adibide bat emango dut. Jaun honek, 1948. urtean Instituto de Estudios Pirenaicos erakundeak Pirineoko toki izenez eratu zituen bileretan «Javier-Chabbarri, dos dialectos ibéricos» zeritzan lana aurkeztu zuen, urte berean *Emerita aldizkarian* argitaratuko zena eta geroago berriz *Toponimia prerrománica hispana* (1952) liburuaren kapitulu bat osatuz. Lan horretan, «barri» eta «berri» geografian mugatzeko unean,

243. orrialdean, «barri» forma batzuk ematen ditu, Gipuzkoa partean aurkituak, Azkueren iritzia deuseztatuz. Baina, zeintzuk dira herri horiek? Arrasate (Mondragoe) eta Oñati. Baina ez zen ohartu bi herriotan bizkaiera mintzatzen dela, eta ez gipuzkera.

Liburu hori argitaratu zenerako Azkue hila zen eta ez dakit beste inork aditzera eman zion Menéndez Pidal jaunari zer nolako hutsean erori zen. Ezetz dirudi, zeren handik hamar urtera ere lehengo berean jarraitu bai zuen, *En torno a la lengua vasca* (1962) deritzan liburuan, berriz ere, Oñati eta Mondragoeko Uribarri auzo izenen adierazpenak jarriaz. Hala irakur daiteke liburuaren 128. orrialdean.

J. S. M.